

# BEASAINGO EAJ-PNVren UDAL PROGRAMA 2007-2011

*Eguneroko elkarlanean Beasain biziberrituz...*

## **Pertsonen beharrei erantzunez ...**

1. HEZKUNTZA
2. PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA
3. EMAKUMEA
4. GIZARTE ONGIZATEA

## **Ekimenak sustatuz eta baliabideak eskeiniz...**

5. KULTURA
6. EUSKERA
7. GAZTERIA
8. KIROLA



## **Etorkizuneko herrigune atsegin eta bizia garatzen...**

9. ZERBITZUAK
10. IRISGARRITASUNA
11. TRAFIKOA
12. AZPIEGITURAK
13. EKIAMENDUAK
14. HIRIGINTZA
15. ONDARE HISTORIKO-ARKITEKTONIKOA

## **Beasain herrigunea baino askoz gehiago delako ...**

16. LANDA INGURUNEA
17. INGURUMENA
18. ESKUALDERAKO



**egin behar dugu**



# **BEASAINGO EAJ-PNVren UDAL PROGRAMA 2007-2011**

## **SARRERA**

Egoera sozio-politikoak zer ikusi handia du udal ekimenean. Euskadiren pake eta normalizazio bidean, hamaika gora-behera ezagutu badugu ere, datozen lau urteak garrantzitsuak izango direlakoan gaude, eta bertan aurrera pausu erabakiorrak emango dira. Horrexegatik, Udaletxetik ere gogotsu bultzatuko dugu Ibarretxe Lehendakariaren elkarbizitzarako proposamena. Pentsatzeko, sinisteko eta bizitzeko herritarrek dituzten era desberdinak gure Udal lanaren oinarriak izango dira. Aniztasun hau aberastasuna da eta aldi berean erronka bihurtzen zaigu partaidetza eta elkarbizitzari ateak irekitzeko orduan.

Herritarren ondoan, jarrera irekia eta entzutetsua izaten saiatuko gara Udaletik. Elkarriketa eta adostasuna indartuz eguneroko elkarbizitza hobetzeko, gatazka eta bazterketa gaindituz.

Herriko etxearen ateak zabalik izango ditugu eta gure Udal lanean ahalegin, asmo eta jarrera ezberdinak uztartzen saiatuko gara. Herritarra eta bere ongizatea dira gure jomuga.

Beasaindarrei zor diogun begiruneagatik zorrotz eta zuhur erabiliko ditugu Udaleko xoxak eta arretaz kudeatu udalak duen pertsonala.

Euskararen alde argi eta garbi joko dugu: herritarrek aukera izan dezaten euskaraz bizitzeko.

Hitz gutxitan, Udaletik, Beasain herri atsegin eta eskuzabala izaten jarrai dezan, lanari heltzeko asmoarekin azaltzen gara. Beasaindarrek bertan prestakuntza, lana eta etxebizitza egokiak eskura ditzaten, kulturaz, aisia eta kirolez goza dezaten, Gizate Zerbitzuak izan ditzaten eta baita ere euskaraz bizitzeko parada izan dezaten.

## **Pertsonen beharrei erantzunez ...**

### **1.- HEZKUNTZA**

Kalitatezko irakaskuntzari aukera eman, eskaintza anitzak sustatuz, herriko behar ezberdinen aurrean erantzun on bat bermatuz (haur-hezkuntza, gazteria, heldu, langabetu...), bidebatez euskeraz bizi ahalbidetzeko.

#### **PROPOSAMENAK:**

1. Udalak dituen zerbitzuak, Ikastetxeei eskeini, hauen erabilera koordinatu bat egin dezaten.(Kiroldegi, Euskaltegi, Arte Plastikoen zentroa, Liburutegi, Usurbe Antzoki...).
2. Kultur zentroen partaidetza bultzatu kultur, kirol edo gizarte ekintzen garapenean parte hartu dezaten.
3. Herritarrei zabaldu Ikasteetxetako kirol eta kultur azpiegiturak.
4. EPA zentroaren instalazioen hobekuntza..
5. **Goierriko Herrien Ekintza Fundazioaren** ibilbidea finkatu, beraren bitartez eta lanbide-heziketa zein lan-berziklatzean egon litezkeen beharrak bideratuz.
6. **Ikastexe Publikoen** mantenu eta hobekuntzekin jarraitu.
7. Lankidetzak Hitzarmenak sinatu, herriko ikastetxe pribatuekin.

## 2.- PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA

Nahiz eta gai honetan Udalaren aukera mugatua izan, tinko jarraituko dugu erakundeekin elkarlanean, bereiziki parte hartzen duen eskualdeko erakundeetatik prestakuntza eta enplegu ekintzak sustatuz.

Goierri Lanbide Eskola dugu bailarako erreferente, gazte, langile, eta langabetuen prestakuntzari dagokionean, eta neurri haundi batean bertako udalen menpe dago. Bestalde eta bailarako udalen esfortzuari esker sortu du Mondragon Unibertsitateak injinieru teknikoen eskola.

Goierriko Herrien Ekintza Fundazioaren inguruan biltzen diren erakundeek, enpresekin sortu duten sareak, prestakuntza malgua, etengabeko berrikuntza eta ia erabateko lan munduratzea sortzeko aukera ematen du.

Guree erronketako bat, herri eta bailara mailan, enpresa zein zerbitzuen garapenerako guneak sortzea da. Honek berrikuntza giro bat eta enpresen hobetzea baitakar, prestatutako pertsonen enplegua zihurtatzeaz gain.

Horrez gain, eta Goierriko Herrien Ekintza Fundazioaren estatutuen arabera, Beasaini dagokio hurrengo lau urteetan bertako lehendakaritza, honekin bertan sortzen diren berrikuntza, ikerkuntza, etorkin edo garapen jasangarri buruzko proiektu ezberdinei, dagokien bultzada emango zaie, lehenaz gain.

Aurreikusten ditugun ekintzak hauek dira:

1. Administrazioetako Terminal publikoen bidez sartzeko **Txartel digitalaren** ezartze orokorra.
2. Kz gunearekin lana egin, tresna informatikoen erabilera orokortze aldera.
3. Eskolatu gabeko gazteei zuzenduriko profesionalizazio eta lan-munduratze programak bideratu, Goierri Lanbide Eskolaren bitartez.
4. Goierriako Mondragón Unibertsitatearen prestakuntza eskaintzak hedatu
5. Lankidetzeta estuago bat bideratu, **LANGAI** eta **INEM**-ekin, beraien zerbitzu eta prestakuntza planak erabiltze aldera.
6. **Enpresa berrien sorkuntzarako** ekimenak bermatu, Goiekiko plan eta proiektuen berri emanez.
7. Bailara mailan, zerbitzu, ikerkuntza eta berrikuntza enpresen sorrerarako guneak erreztu.
8. **Enplegu-sustapen** programekin lankidetzan jarraitu, ahal den neurrian iraupen luzeko langabetu, gazte eta etorkinengan eragina izateko.
9. Ezinduen lan-munduratzea sustatzen duten elkarteekin elkarlanari eutsi.

## 3.- EMAKUMEA

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eman dadin lanean jarraitu.

Eskarmentuak adierazten du, emaitzen berdintasuna lortzeak ez duela aukera berdintasunik bermatzen. Beste ekintza batzuk ahalbidetu behar dira, emakumeen partaidetza berdintasunean eman ahal izateko.

PROPOSAMENAK:

1. **EMAKUNDE** rekin elkarlanean jarraitu.
2. Emakumeen iritziak aintzakotzat hartu hirigintza proiektuetan.
3. Kultur eta aisia ekintzetan, emakumeen partaidetza eraginkorra goratu, emakumearen erabateko bertakotzea eman arte.
4. **ASMUBE** ren lana goraipatu, egiten dituzten kultur ekintza ezberdinetan lagunduz. Beren lokal eta instalazioak hobetu.

5. Prestakuntza anitz eta dibertsifikatuak garatu, emakume helduen prestakuntza beharrei erantzungo diena. Emakumea, bailarako esperientzi eskolara bultzatu.

## 4. - GIZARTE ONGIZATEA

Azkeneko urteetan Gizarte-Ongizate zerbitzuak **bilakaera** nabarmen bat izan du, berriak martxan jarri eta zeudenak zabaldu edo arautuz. Bestalde instituzio desberdinekin eginiko **elkarlanak**, udalaren errekurso propioekin aurrera eramatea ezinezkoa ziren ekintzak errealitate bihurtu ditu.

Aurrera begira gure lana 4 **HELBURU NAGUSITAN** laburbilduko dugu:

1. Laguntzak **benetan behar dituenari bideratu**.
2. Laguntzak jasotze huts batetik, ordainetan **konpromezuak** hartzeko dinamika sortarazi..
3. Gizartean ematen diren aldaketei erantzutea, adibidez gizartean **adinekoak** eta **etorkinak** gehitzeri aurre hartuz..
4. Herritarren arteko **elkartasuna** bultzatzen duten elkartei lagundu..

**PROPOSAMENAK** egiterakoan, errotuak daudenaz gain, hurrengo urtetarako ondorengo erronkak azpimarratuko genituzke:

1. Arriskuan egon daitezkeen pertsonen (80 urtetik gorakoak, bakarrik bizi diren alargunak, adin txikikoak...) gerturatu.
2. Insertzio hitzarmenak eta Auzolan bezalako enplegu programak bultzatu.
3. Enplegu zerbitzu eta Lanbide Heziketa erakundeekin elkarlanean jarraitu.
4. Arangoitin hirugarren adineko egoitzan plazak %50ean zabaldu, behar berriei egokitzuz (psokogeriatría)
5. Arriskuan egon daitezkeen gazteekin drogomenpekotasun prebentzio zerbitzua birplanteatu.
6. Talde desberdinak (elbarrituek, etxe gabekoak ...) behar izan ditzaketen zerbitzu berrien eraketa bultzatu.
7. Hirugarren munduarekin Lankidetzaren egitaraua beasaindarrei gerturatu.
8. Herriko elkarten lana bideratu.
9. Ongizate alorreko errekursoak, dauden behar berrietara egokitu.
10. Kalitatea, partaidetza eta teknologia berriak eguneroko lanean integratu.

## Ekimenak sustatuz eta baliabideak eskeiniz...

## 5. - KULTURA

Bizitzan, gutxi izango dira, kulturak bezain definizio anitz bereganatzeko gai diren hitzak. Kulturaz, arlo zabalenetik estuenera jo dezakegu, ikuspegi orokorrenetik zehatzenera, gutxi baitira gizakiaren egunerokoan kulturarekin zerikusia ez duten gauzak.

Gizartea aldatuz doa eta berarekin bera garatzen diren guneak. Aldaketa horiek eta ematen diren abiadura dira gaur egungo gizarteetako ezaugarri nagusiak, baita kultur arlotik begiratu ezker ere.

Horrexegatik, 'orokortasun' horrek dakarrena alderatu gabe, inoiz baino beharrezkoagoa da bertako kulturari, gure nortasunaren muinari, indarra ematea, bien arteko oreka bilatzearren.

#### PROPOSAMENAK

- 1- Kultur ekintza ezberdinak bilduko dituen gunea lehenetsi. Horretarako, Urbieta etxea proposatuko dugu kultur-etxe, beharrezko diren guneak zabaldu.
- 2.- Eskaintza kulturala zabaltze asmoz, Igartza ingurua egokitu.
- 3.- Herriko talde eta elkarte ezberdinekin elkarlana sustatu. (Musika, dantza, arte plastikoak, argazkigintza, antzerkia, bertsolaritza...)
- 4.- Eskolatutako umeei zuzenduriko ekintza kulturaletan parte hartzen segi, herriko ikastetxeekin elkarlanean.
- 5.- Bailarako beste herrien arteko talde lana sustatu, dauden baliabide eta egiten diren ekintzei ahalik eta zuku gehien ateratzeko.
- 6.- Auzo eta herriko festen antolaketan, herritarrei aukera ematen jarraitu.
- 7.- Herriko enpresa eta merkatarien partaidetza bultzatu, kultur ekintzen garapenean.
- 8.- Liburutegiko zerbitzuak indartu, beren erabilera sustatzeko.
- 9.- Ludoteka eta Gaztegune eta ludotekak sendotu, behar berrie ateak irekiz.
- 10.-MUSIKA ESKOLAREN eskeintzen euskarri izan (musika-tresna, ikastaro, udaleku...).

## 6. - EUSKERA

Geroz eta eleanitzagoa den gizarte honetan, euskaraz bizi nahi duten herritarrei, aukera hori bermatzea eta, aldi berean ez dakitenei hizkuntza erakargarri eginez, ikasteko aukerak eskaintzea du xede Eusko Alderdi Jeltzaleak.

Ezinbestekotzat jotzen da, hizkuntzaren erabilera areagotzeko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzea..

1. Aipatutako helburuak lortze asmoz eta gure hizkuntza, zerbitzu hizkuntza ere izan dadin, udal barruan, administrazioak, lau urteko erabilpen plana martxan du jada eta bertan, zerbitzu egokia eskaintzeko pausuak zehazteaz gain, berau garatzen lanean dihardugu.
2. Bestetik, euskal kultura herritarrei gerturatzeko ekitaldi garrantzitsuak eta denboran, erreferente izango direnak bultzatzeko konpromezuarekin jarraituko dugu.
3. Merkataria eta herriko beste zerbitzuetan, euskararen presentzia bermatzen duen programekin segituko dugu lanean.
4. Ikastetxe eta kirol taldeekin ere harremanetan jarraituko dugu beraien eskaintzak euskararen erabilera areagotu dezan.
5. Aisia ardatz nagusi bihurtu zaigu eta horren jakitun izanik, dauden ludoteka eta gaztegunea sendotzeaz gain gunee berrietan sortzen ari diren beharrei erantzun.
6. Irakurzaletasuna bultzatzen jarraituko dugu, lehiaketa, liburutegi eta liburu azokaren bitartez.
7. Udal euskaltegiaren uneoroko egokitzea eta herritarrenganako gerturatzeko sustatu, bertako zein kanpotik datozenek ahalik eta eskeintza neurrituagoa egiteko asmoz.

## 7. - GAZTERIA

Sarritan, herriko ekintzetan, gazteei ez zaie aukerarik ematen beren ideiak eta beraien ikuspuntutik burutzeko.

Informazioa beren eskura jarri behar da, eta bere kabuz landu behar dute, horrek arlo ezberdinen arteko elkarlana eskatzen du, horretarako programa egokiak sortu ditzaten.

### PROPOSAMENAK:

1. Gaztegunea sendotu eta indartu.
2. Gazte informazio bulegoa sortu, zerbitzu telematikoak baliatuz.
3. Gazte taldeekin lan egin, kultur, festa zein kirol programak burutzeko.
4. Gazte jardueren garapenerako, udal zerbitzuen erabilpena ahalbidetu.(Kontzertu, hitzaldi...)
5. Prebentzio, lankidetzeta eta tolerantzia kanpainak sustatu.
6. Gazteen beharrak kontuan izan, etxebizitza egitasmoak egiterakoan.

## 8. - KIROLA

Pertsonaren garapenean eta osasunean kirolak duen garrantziaz oharturik, gure helburua da, herritar guztiei horretarako aukerak ematea.

Beraz, gure ekimenak hurrengo hauek izango ditu ardatz:

- Kirolean zaletasun eta jarduna irakatsi, gazteengan ohitura egokiak zabaltzearen.
- Kirolean parte-hartze zabala lortzearen, kirol jarduna.

### PROPOSAMENAK:

1. Kirol ezberdinetan jardun ahal izateko guneak osatu.
2. Kirola egiteak dituen onurak azalduko dituen sentiberatze kanpainak bultzatu.
3. Haur, gazte, ezindua, gutxitu eta 3. Adinekoengan ardura berezia jarri.
4. Mantendu:
  - Ikasleei zuzenduriko Eskola kirola, kirol igeriketa... programak.
  - Kirol talde ezberdinei zuzenduriko dirulaguntza plana.
  - Diru sarrera gutxien dituztenentzat dirulaguntzak.
5. Kirol talde eta elkarten ekimenak sustatu eta bultzatu.
6. Kirol ekintza eta ikuskizun zabalak ahalbidetuko dituen herri ekimenak lagundu.
7. Kirol talde eta erakundearen arteko elkarlana erreztu.

# **Etorkizuneko herrigune atsegin eta bizia garatzen...**

## **9.- ZERBITZUAK**

Udal-zerbitzuen prestakuntza hobe bat bermatu, hori baita gure ongizatearen oinarria.

Herriko argizteria, kale-garbiketa, zabor-bilketa, saneamendu, edateko uren hornikuntza, horizontalki zein bertikalki dauden seinaleak, espaloiak, hiri-altzariak... dira arlo honen egitekoak. Ditugun zerbitzuak mantendu eta hobetzea da gure helburua, sortzen diren arazoei ahal den neurrian aurrea hartuz, edo ahalik azkarren konpontzen.

### **PROPOSAMENAK**

1. Herritarrak hezi eta sentikortuko dituen kanpainak egin, inguru osasungarriagoa lortzearen, kostuak murriztuz. Honoko gai garrantzitsu hauetan adibidez:
  - Kale garbiketa.
  - Parke eta lorategien zaintzea.
  - Abereen iraizkinak.
  - Zabor ixurketa.
  - Hondakinen ixurketa.
2. Kale eta bideetako asfaltatuaren hobetze eta berritzea maiz egin.
3. Lorategi zerbitzua zabaltu, daudenak indartu eta berriak sortuz, dauden dirulaguntzei etekin hoberena ateraz.
4. Kanpainak bultzatu, txakur eta etxeko abereak dituztenak ingurua zaindu dezaten.
5. Hiri-altzari eta paper-ontzi gehiago jarri, beraien mantenurako aurrekontua handituz.
6. Sagastigutia parkeko zaintza eta mantenua indartu.
7. Haur-parke gehiago egin, daudenak behar bezala mantenduz.
8. Bide eta kale-garbiketa zerbitzua zabaltu eta areagotu, horretarako aurrekontua egokituz.

## **10.- IRISGARritasuna**

Beharrezko jarduerak antolatu, pertsona guztiak gune eta lokal publiko guztietara iristeko.

1. Pixkanaka zoladura irristagaitzak jarri
2. Herriko zenbait guneetako espaloiak zabaltu.
3. Oinezkoen pasabideak hobetu.
4. Pixkanaka herriko hiri-altzariak ordezkatzuz joan, erosoago eta erabilgarriagoa izan.
5. Udaleko lokaleetara iristea erraztu eta hobetu.
6. Igogailu eta eskilara-mekanikoak jartzeko moduak aztertu, jende asko bizi den herriko toki altuetara iritsi ahal izateko.
7. Urtero gutxienez 150.000 euro aurreikusi irisgarritasuna hobetzeko.

8. Udaleko iristerraztasun plana aztertu eta egokitu.

## 11.- TRAFIKOA

Herri-barruan kotxea gutxiago erabiltzea ezinbestekoa da, baldin eta CO<sub>2</sub> ixurketa jeitsi nahi bada, horrekin gure osasun eta bizi kalitatea hobetuz.

1. Herri-barruko trafikoa gutxitze asmoz, Bernedoeneako aparkalekurako sarbideak hobetu, bertara eramanez herri erdian denbora luzez eta lana dela eta egoten diren ibilgailuak .
2. Herriko zenbait tokitan kontrlatutako aparkalekuak ezarri.
3. Igartza Oletan bertakoentzat aparkalekua jarri.
4. Kale Nagusiko trafikoa baretu .
5. Zaldizurretako errotonda eraiki ondoren kaleen norabideak egokitu.
6. Herriko zenbait kaleetan kotxeen abiadura moteltze aldera neurriak hartu..
7. Goierriko beste udalerriekin batera garraio publikoa sustatu, herriarteko autobusen zerbitzua hobetuz, trenaren erabilera bultzatuz, industrialdetara autobusak ipiniz...

## 12.- AZPIEGITURAK

Herri ingurua hobetzea eta gizatiartzea, azpiegitura berriei aurre eginez.

1. Loinazko San Martin plaza berritu, goikalde zein behekaldea, gune argitsu eta garbi baten bihurtuz.
2. Anbulategiko errotonda gauzatu.
3. Herri- sarrerak hobetu, Suministros Loinaz inguruan, N 1 azpiko bidea bukatuz.
4. Igartza Oletan, bertakoentzako aparkalekua egin.
5. Itola industriadeko lehen zatia amaitu eta bigarrenari ekin.
6. Herriko urzikinak guztiak jasoko dituen kolektoreko lanak bukatu.
7. Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean jarraitu, Abiadura Azkarreko Trenari buruzko informazioa herritarren eskura jartzeko. Aldi berean, lan horiek herritarrengan ahalik eta eragin gutxien izan dezan eta ingurumenari sortu liezaizkikeen kalteak konpontzeko lana egin.

## 13.- EKIPAMENDUAK

Gizarte ,osasun, kirol zein aisialdi ekipamenduak hobetzea eta gehiagotzea da gure helburua, Beasaindar eta Goierritarren esku kalitatezko zerbitzuak jarritz.

1. Antzizar Kiroldegiko handitze obrak amaitu.
2. Osasun mentaleko eguneko zentroa martxan jarri.

3. Urbietan etxeko gunea bikoiztu, Kultur-etxe bihurtuz, horretarako, INEM zein CAISS ek dituzten bulegoak toki egoki eta eskuragarri batean jarri.
4. Igartza Jauregia birgaitu ondoren, erabilera anitzetarako egokitu: erakusketa, ezkontza, kontzertu, harrera ekitaldi, bilera gela...
5. Arangoiti Fundazioko kide gisa, psikogieria unitateentzako, honen handitzea bultzatu.
6. Herrian beren eskualdeko eguneko zentroa kokatzeko ASPACE rekin lankidetzan jarraitu.
7. Gurutze Gorrikoekin lankidetzan jarraitu, beren sorospen-leku berria eraikitzeko.
8. Ezkierdiko haur parkea handitu.
9. Iturralde plaza eta parkea berri.
10. Dolarea parkean erabilera anitzeko gune estali bat sortu.
11. Klean komon berriak jartzen jarraitu.
12. Ludoteka berria jarri Igartza-Oleta auzoan.
13. Olaran manufaktura-en etxea eskuratu ondoren eta enpresa zein erakundeekin elkarlanean, gazte lehiatsuentzako, ikerkuntza berrikuntza eta teknologiarik berriaren oinarritutako enpresa berriak sortzeko gunea egokitu.
14. Eraikuntza publikoetan (Liburutegi, Antzizar Kiroledegia, Osasun zentru...) mutur telematikoak jarri.

## 14.- HIRIGINTZA

Herritarren elkarbizitzak dituen premiei aurre egin eta erantzuteko asmoz, udalerria ordenatzen eta egokitzen saiatzen da hirigintza.

Etxebizitza egokiak, topagune atseginak eta kalitatezko zerbitzuak behar eta eskatzen dituzte herritarrak. Bestalde, lana izateko lantokien kokapenak eta garapenak bermatu behar dira eta baita ibilbide-sarea, oinezko, txirrindulari eta ibilgailuentzat egokitu ere, finean gure ondarea berreskuratuz, bere erabileraz gozatzeko.

Hurrengo lau urteak baino luzeago joko badu ere, RENFE-ren tren geltoki ingurua bizileku gune bihurtzeko asmoz, diputazio zein Fomentorekin jarraituko dugu lanean.

Arana kaleko etxebizitzaren birgaitzea bultzatuko dugu.

Etxebizitzaz, amenduak, azpiegituraz eta trafikoaz honako proposamenak egiten ditugu:

### ETXEBIZITZA:

Udaletik, kalitate zein salneurri egokienean, ahalik eta etxebizitza babestu gehiago eskeintzea izango dugu helburu. Hirigintza arauetan oinarritutako planeamentuak ahalik eta hobekien kudeatzen saiatuko gara, bizileku berriak premiaz garatze asmoz.

Arrazoi horiek medio, 2007an hasiko diren 42 etxebizitzaz gain, 2008az geroztik, urteko, babestutako 50en bat etxebizitza gauzatzeko hitza ematen dugu. Horien guztien sekuentzia honako hau litzateke:

2008: Babestutako 76 etxebizitza.

- 38, Hunolt lantegiaren gunean.
- 38, Ordiziarekin muga egiten duen Mariarats inguruan.

2009: Babestutako 55 etxebizitza.

- 38, Errekarte inguruan.

- 17, Dr. Fleming inguruan.

2010: Babestutako 78 etxebizitza.

- 20, Olaranen.
- 22, Errekarten.
- 36, Antzizarren.

2011: Babestutako 50 etxebizitza.

- 50, Ugartemendin.

## 15.- ONDARE HISTORIKO-ARKITEKTONIKOA

Udalerrian dugun ondare, urri baino aberatsa, mantendu eta birgaitu, bere izaerari denboran eutsi nahi dion gizarte baten funtsa baita.

1. 2010. urterako Igartza Jauregia berritu.
2. 2010. urterako Dolarea, emakidadun enpresaren bitartez , ostalaritza eta hotel gisa egokitzea.
3. Olaranen berritzea, behin eskuratu eta gero.

## Beasain herrigunea baino askoz gehiago delako ...

## 16.- LANDA INGURUNEA

Beasaingo erroldak argi azaltzen du nekez bizi daitekeela gaur egun, baserriak ematen duenetik.

Udalaren lana, baserrietan bizi direnen bizi kalitatea, funtsean, kalean bizi direnaren parekoa lortzea da.

Bestalde Beasainek baditu beren nortasuna garatuta duten landa auzoak. Jakitun gara egiten ari diren lana zein den hori horrela mantentzeko, horren oinarri baitira bertako hornikuntza eta azpiegituren hobetzea.

Auzo hauen suspertzea ezinbestekoa da, beraien ohitura eta bizimoduari eusteko. Aldi berean aukera paregabea da kaletarrentzat, naturarekin harreman estuago bat lortzeko.

### PROPOSAMENAK:

1. Baserritarako bideak mantendu eta hobetzen lagundu.
2. Auzo eta baserriak sute-aho eta ur-harguneez hornitu, suteei aurre hartu edo itzaltzeko.
3. Auzoetako bizilagunen ekimenak sustatu eta garatzen lagundu, bertako hornikuntza eta azpiegiturak hobetzeko.(eliza, elkarte...)
4. Landa gunea gerturatu herritarrei, horretarako seinale zein bidexkak garbituz, bertako baserri zein auzoak jendeak ezagutu ditzan.
5. Auzoei dagokienez, hirigintza arauetan aurreikusitakoa betetzea.

## 17.- INGURUMENA

Garapena eta ingurua errespetatzea, askotan kontrajarriak egon dira. Gaur egungo bizi kalitatea, bi faktoreen elkar hartzearen ondorio dira: justizi soziala eta ingurumenaren babesa.

### PROPOSAMENAK:

1. Ingurumena zaintzea helburu duten kanpainekin jarraitu, herritarrek ingurumenaren sentsibilizazioa areagotzeko asmoz, beren ohiturak aldatuz eta bide batez 3 R deritzon filosofian jasotakoa: Hondakin industrial eta urbanoen berreskuratze, berziklatze, eta murriztea.
2. Aurrera doan Agenda XXI aren ezartzea, bai herri mailan edo bailara mailan, horretarako eta foroen bidez jendearen partehartzea sustatuz.
3. Mugikortasunaren alde egitea da Agenda XXI en helburuetako bat, horretarako oinezko eta txirrindulariei mugikortasuna erreztuz, honekin batera CO<sub>2</sub> ixurketa gutxituz. Hauek dira gure asmoak:
  - Herriko bidegorria osatu.
  - Beasain Ormaiztegi bidegorriarekin lotu.
  - Herri inguruan gerriko berdea sortu, Usurbeko behe magaletik Zunzunegitik pasa eta Lazkao eta Ataun lotzen dituen bidekaraino eramango gaituena, bertako baso eta zelai artetik.
4. Bailaran lanean jarraitu, garraio publikoa indartze asmoz.
5. Diputazioarekin elkarlanean jardun, N-1ean pantaila akustikoak jartzeko eta trenbide alboetan ere..
6. Enpresei, beren ekoizpen prozesuetan, ingurugiro arauak betetzea erreztu.

## 18.- ESKUALDERAKO

Hurrengo lau urtetan Beasaingo udalari dagokio, bailarako garapenerako gakoa den Goierriko Herrien Ekintza Fundazioak biltzen dituen erakunde lehendakaritza.

Bertatik, dauden programa eta ekimenak indartu eta jarraitzen saiatuko gara, batez ere:

1. .Lantzen ari den etokinen bailara planaren ezarpena.
2. .Mugikortasun bailara planaren garapena eta Agenda XXI industrial.
3. .Goiturren bidez eragile ezberdinen arteko elkarlanean parte hartu eta bultzatu.
4. Bailarako eta Injeniaritza Eskola, gune teknologiko... inguruan, polo teknologiko baten sorrera, ondorioz, enpresa berriztatzaileak hornituko lituzkeena, enpresetako produkzio eta kudeaketa sistemen aldatetetan buru izango liratekeenak, eduki teknologiko handiko produktu eta zerbitzu berriei atea irekiz.